**Amorebieta-Etxanoko Udala**
**Bizkaia**

| |
|---|
| ***2008KO IRAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA*** |
| ***ACTA DE LA SESION PLENARIA ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 25 DE SEPTIEMBRE DE 2008*** |
| ***ALKATE-UDALBURUA***<br>***ALCALDE-PRESIDENTE***<br><br>D. David Latxaga Ugartemendia j. |
| ***ZINEGOTZIAK / CONCEJALES ASISTENTES:***<br>Dª Amagoya Madariaga Olea and.<br>D. Alberto Gallastegi Abendibar j.<br>D. Anartz Gandiaga Zarazua j.<br>Dª Sara Chamizo Diez and.<br>D. Andoni Agirrebeitia Abendibar j.<br>D. Iñigo Artetxe Arrieta j.<br>D. Iñigo Bilbao Rekagorri j.<br>Dª Karmele Aurtenetxe Elorriaga<br>D. Antonio Castellet Conesa j.<br>D. Alberto Borobia Conde j.<br>Dª Alicia Eugenia Hernandez Cid and.<br>Dª Belen Saralegui Valero and.<br>D. Vicente Julian Silva Gonzalez j.<br>D. Miguel Rodriguez González j.<br>D. Javier Atxurra Gojenola j.<br>Dª Beatriz Calvo Fernández and. |
| ***IDAZKARI NAGUSIA***<br>***LA SECRETARIO GENERAL***<br>Dª Teresa Virto Larruscain and. |
| ***LA TECNICO DE LA ADMINISTRACION GENERAL***<br>***ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA***<br>Dª Jasone Ibarra Unzueta and. |

Amorebieta-Etxanoko udaletxeko batzar-aretoan, bi mila eta zortziko irailaren hogeita bostean, goizeko zortzi eta erdietan, David Latxaga Ugartemendia Alkate-udalburu jaunaren agindupean, aktaren hasieran aipatu diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, agiria izenpetu duen Teresa Virto Larruskain idazkari andrearekin, horretarako deialdia egin delarik, ohiko osoko bilkura egiteko. Era berean, Jasone Ibarra Unzueta Administrazio Orokorreko Teknikaria ere batzarrean egon da.

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano a las ocho horas y treinta minutos del día veinticinco de septiembre de dos mil ocho, bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente D. David Latxaga Ugartemendia se reunieron los Sres/Sras. Concejales que al comienzo del acta se expresan, con asistencia de la suscrita Secretario General, Dª Teresa Virto Larruskain, con el fin de celebrar sesión Plenaria Ordinaria, previa convocatoria cursada al efecto, estando presente también la Técnico de Administración General Dª Jasone Ibarra Unzueta.

Alkate jaunaren aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kide guztiei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

Abierta la sesión de orden del Sr. Alcalde, se somete a la consideración de la Corporación los asuntos comprendidos en el Orden del Día de la presente sesión sobre los cuales se adoptaron los acuerdos siguientes:

"Voice Ralentizer" izeneko programa informatikoarekin arazoak izan zirenez, gai-zerrendako laugarren puntutik aurrera grabatzen hasi zen.

Se hace constar que la grabación comienza a efectuarse a partir del punto 4 del Orden del Día por problemas en el programa informático "Voice Ralentizer".

**1.- ABUZTUAREN 28AN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA IRAKURRI ETA, HORRELA BALEGOKIO, ONARTZEA.**

Abuztuaren 28an egin zen bileraren akta irakurri da.

**EA-ko Atxurra j.k:**

Ondokoa adierazten du: 24. orrialdean, "17 dezibelio" jartzen duen lekuan 70, 80 jarri beharko lukeela.

Grabazioan egiaztatu ondoren, 17 dezibelio esan zuela baieztatzen da.

Dena dela eta akats bat dela ikusirik, zuzenketa onartzen da eta 70,80 dezibelio jarriko da.

Zuzenketak egin ondoren, akta aho batez onartu da.

**1.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR CELEBRADA EL DÍA 28 DE AGOSTO.**

Dada lectura del acta de la sesión anterior celebrada el día 28 del pasado mes de Agosto:

**Sr. Atxurra de EA:**

Manifiesta que en la pag. 24, donde pone "17 decibelios" deberia ser 70 u 80.

Comprobada la grabación manifiesta 17 decibelios.

No obstante, tratándose de un error, se efectúa la rectificación a 70 u 80 decibelios.

Hecha la aclaración, es aprobada el acta por unanimidad.

**2.- 2008KO UDAL**

**2.- DACIÓN DE CUENTA DE LA**

**AURREKONTUKO ALDAKETAREN BERRI EMATEA: KREDITU GEHIGARRIEN 5. ZK.DUN ESPEDIENTEA (08-3188).**

Udalbatzari 2008ko Udal Aurrekontua aldatzea behin-betiko onartu dela jakinarazten zaio (kreditu gehigarrien 5. zk.dun espedientea). Izan ere, jendaurrean ikusgai egon den epean legezko interesa dutenek ez dute erreklamaziorik aurkeztu eta behin-betiko onarpenaren iragarkia 2008ko irailaren 16ko 177 zk.dun BAOean argitaratu zen.

**3.- AMOREBIETA-ETXANOKO UDAL ARGITERIA PUBLIKOAREN FUNTZIONA-MENDUA, ARTAPENA ETA EGOKITZAPENA KONTROLA-TZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATA-TZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIAK. (08-2797 ESP).**

IKUSIRIK Amorebieta-Etxanoko udal argiteria publikoaren funtzionamendua, artapena eta egokitzapena kontrolatzeko zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratzeko espedienteari hasiera men zaiola eta baldintza tekniko eta administratibo berezien pleguak idatzi direla.

KONTUAN IZANIK Idazkari-Kontuhartzaileak eta Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenak.

KONTUAN IZANIK urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, Udalbatzako osoko bilkurari dagokio gai honen gaineko erabakia hartzea.

KONTUAN IZANIK Obra eta Zerbitzuetako Informazio Batzordeak

**APROBACIÓN DEFINITIVA DEL EXP. Nº 5 DE CRÉDITOS ADICIONALES DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL. (08-3188).**

Queda enterada la Corporación de la aprobación definitiva de la modificación del Presupuesto Municipal para 2008, expediente nº 5 de créditos adicionales dado que, en el periodo de exposición al público no se han presentado reclamaciones por parte de los interesados legítimos, siendo publicado el anuncio de la aprobación definitiva en el B.O.B. nº 177, de 16 de septiembre de 2008.

**3.- PLIEGOS DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL SERVICIO DE CONTROL DE FUNCIONAMIENTO, CONSERVACIÓN Y ADECUACIÓN DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO MUNICIPAL DE AMOREBIETA-ETXANO. (EXP.: 08-2797).**

RESULTANDO que ha sido incoado expediente de contratación para la adjudicación, mediante el procedimiento abierto del servicio de control de funcionamiento, conservación y adecuación de las instalaciones de alumbrado público municipal de Amorebieta-Etxano y redactado los Pliegos de Cláusulas técnicas y administrativas particulares.

CONSIDERANDO Los informes emitidos por la Secretario-Interventor y Técnico de Administración General.

CONSIDERANDO que, de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional segunda de la Ley 30/2.007, de 30 de Octubre, de Contratos del Sector Público es competencia del Pleno de la Corporación la resolución del presente asunto.

CONSIDERANDO el Dictamen emitido por la Comisión Informativa de

emandako irizpena.

Jarraian gaia eztabaidatzeari ekin zitzaion.

**PP-ko Calvo and.k** adierazten du ezin izan zela Batzordera joan baina Pleguarekin ados dagoela. Hala ere, programa garatzeko zerbitzuari 25 puntu eta zerbitzuari atxikitako bitartekoei 15 puntu ematea balorazio irizpideetan errepikatzea dela iruditzen zaiola adierazten du. Aipatutako lehenengo irizpidean bigarrena ere sartu ahal izango litzatekeela aipatzen du eta horrela, irizpidearen balioa ere gehitu (gainontzeko 15 puntuak).

**PSE-EE-ko Castellet j.k** adierazten du bozkatu behar den baldintzen plegua ez zaiela eman eta hortaz, ezin dutela ez alde ez kontra bozkatu ez dutelako ezagutzen.

Berriro halakorik gertatuz gero udalerrian dauden beste gauza batzurekin eta aldez aurretik aztertzea beharrezkoa bada, gure taldeak une horretan bertan aurka bozkatuko luke.

**Alkate j.k** erantzuten du eskubideez gain zinegotzi j./and.ek betebeharrak ere badituztela. Komunikazio akatsak zuzentzeko beste bide batzuk badaude. Teknikariak edozein informazio argitzeko prest daude eta telefonoz deitu daiteke.

**Idazkari and.k** adierazten du espedienteak agiri guztiekin Idazkaritzan izan direla Osoko Bilkura egingo zela jakin zenetik, hau da, bilera baino 48 ordu lehenagotik.

**PSE-EE-ko Borobia j.k** errepikatu du Batzorderako ez zuela Plegua, Plegua ez zegoela Batzordearen bileran. Berak ez du aukerarik bere lanpostua edozein unetan utzi eta

Obras y Servicios.

Seguidamente se procedió a debatir el asunto.

**La Sra. Calvo, del P.P.,** manifiesta que no pudo asistir a la Comisión pero está de acuerdo con el Pliego. No obstante, considera repetitivo que en los criterios de valoración del concurso se atribuyan 25 puntos al Programa de desarrollo del servicio y 15 puntos a los medios adscritos al servicio. Considera que al primer criterio mencionado se podrían englobar también el segundo e incrementar el valor del criterio, oferta económica en los 15 puntos restantes.

**El Sr. Castellet, del PSE-EE**, expone que no se les ha facilitado el pliego de condiciones que se va a votar por lo que no pueden votar ni a favor, ni en contra, porque no lo conocen.

Si esto volviera a ocurrir con otras cosas que haya en el municipio y que haya que estudiarla anteriormente, el grupo nuestro en ese mismo momento votaría en contra.

**El Sr. Alcalde** contesta que además de derechos los Sres. Concejales tienen también obligaciones, existen otros mecanismos para subsanar fallos de comunicación. Los técnicos están dispuestos a aclarar cualquier información, y se puede llamar por teléfono.

**La Sra. Secretario** expone que toda la documentación completa de los expedientes se ha encontrado a disposición de los Sres. Concejales en la Secretaria desde que se convocó el Pleno, 48 horas antes a la celebración de la sesión.

**El Sr. Borobia, del PSE-EE,** reitera que no tenía el Pliego para la Comisión, el pliego no estaba en la reunión de la Comisión. El no tiene disponibilidad para abandonar en cualquier momento su puesto

Udaletxera etortzeko edo telefonoz deitzeko. Berak dokumentazioa nahi du gaiak eztabaidatu aurretik, eta ez zeukan. Batzordean ez zitzaion eman.

de trabajo para venir al Ayuntamiento o para llamar por teléfono. El quiere la documentación antes de debatir los temas y no la tenía. En la Comisión no se le entregó.

**Alkate j.k** adierazi du “El día de la marmota” filmean gertatzen den bezalako sentsazioa duela, hau da, protagonista egunero jaikitzen da baina ez da denbora pasatzen, beti gertatzen da gauza bera.

**El Sr. Alcalde** manifiesta que tiene la sensación de que es como la película, “El día de la marmota”, donde el protagonista se levanta todos los días pero no transcurre el tiempo, siempre pasa lo mismo.

**EAJ-PNVko Artetxe j.k** azaldu du Batzordea bildu baino 28 ordu lehenago Pleguak bidali zirela posta elektroniko bidez. Ez du uste posta elektronikoa ireki ez izana —hori da Borobia j.k eman zuen azalpena— arrazoi nahikoa denik Batzordearen beste bilera bat egiteko; izan ere, Atxurra j.ri eta Rodriguez j.ri iritsi zitzaien.

**El Sr. Artetxe, de EAJ-PNV**, explica que 28 horas antes de la reunión de la Comisión se remitieron los Pliegos vía correo electrónico. No cree que sea razón suficiente para celebrar una nueva reunión de la Comisión al no haber abierto el correo electrónico que es la explicación que dio el Sr. Borobia, a los Sres. Atxurra y Rodriguez les había llegado.

**Hirigintzako AOTk** azaldu du espedientea osatuta zegoela bileraren unean, pleguak barne, eta aspaldian zeudela gainera, izan ere, espedientean dauden pleguei buruzko txostenak, uztailaren 24ko datakoak dira AOTren kontratazioarenak, eta irailaren 17koak behin-behineko kontu-hartzailearenak.

**La TAG de Urbanismo**, explica que el expediente estaba completo en el momento de la reunión, incluidos los pliegos y lo estaban con bastante anterioridad ya que los informes sobre los pliegos que obran en el expediente son de fecha 24 de julio el de la TAG de Contratación de 17 de septiembre el de la Interventora Accidental.

**Borobia j.k** azaldu du EAko zinegotziak bileraren egunaren bezperan, gauean, jaso zuela posta. Gainera bere ustez ez dago behartuta posta elektronikoa irekitzen inork ez badio esaten zabaltzeko. Gero, astelehenean Udaltzaingoan utziko ziotela esan zioten eta ez zioten utzi.

**El Sr. Borobia** expone que el concejal de EA recibió el correo la víspera de la reunión por la noche. Además considera que no tienen la obligación de abrir el correo electrónico si nadie le dice que abra el correo. Después el lunes se le dijo que se le iba a dejar en la Policía Municipal y no se le dejó.

**Madariaga and.**k erantzun dio plegua Udaltzaingoaren bulegoan zegoela astearte goizean.

**La Sra. Madariaga** le contesta que el pliego estaba en la oficina de la Policía Municipal el martes por la mañana.

**Borobia j.**k erantzun du asteartean arratsaldeko 6etan ez zegoela.

**El Sr. Borobia** responde que el martes a las 6 de la tarde no estaba.

**Alkate j.k** azaldu du Pleguaren gorabeherei buruz hitz egin dela, baina ez

**El Sr. Alcalde** expone que se ha hablado de las peripecias del Pliego pero no

Pleguari buruz. Asko hitz egiten da eperrari buruz baina saltsari buruz bat ere ez.

del Pliego. Se habla mucho de la salsa pero nada de la perdiz.

Udalbatzak aldeko hamahiru botorekin, PP-ko Calvo and., EA-ko Atxurra jn., EB-BERDEAK-eko Silva eta Rodriguez jn.ak eta EAJ-PNV-ko Artetxe, Biblao, Aurtenetxe, Agirrebeitia, Chamizo, Gallastegi, Gandiaga, Madariaga eta Latxaga jn./and.enak eta lau abstentziorekin, PSE-EE-ko Castellet, Borobia, Hernandez eta Saralegi jn./and.ak, ondokoa

ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Amorebieta-Etxanoko udal argiteria publikoaren funtzionamendua, artapena eta egokitzapena kontrolatzeko zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratzeko baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartzea.

BIGARRENA: Amorebieta-Etxanoko udal argiteria publikoaren funtzionamendua, artapena eta egokitzapena kontrolatzeko zerbitzua esleitzeko prozedura hastea. Horretarako iragarkia argitaratuko da Europear Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (Udaletxean izango da kontratatzailearen profila).

HIRUGARRENA: Erabaki honen aurka kontratazio arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da hamar lanegunetako epean.

LAUGARRENA: Alkate jaunari ahalmena ematea erabaki hau izapidetu eta egikaritzeko.

La Corporación por mayoría de trece votos a favor de l@s Sr@s. Calvo del P.P., Atxurra de EA, Silva y Rodriguez de EB-B-BERDEAK, Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Agirrebeitia, Chamizo, Gallastegi, Gandiaga, Madariaga, y Latxaga, de EAJ/PNV y cuatro abstenciones de @s Sr@s. Castellet, Borobia, Hernandez y Saralegi de PSE-EE,

ACUERDA:

PRIMERO**:** Aprobar los Pliegos de Cláusulas Técnicas y Administrativas Particulares para la adjudicación, mediante procedimiento abierto del servicio de control de funcionamiento, conservación y adecuación de las instalaciones de alumbrado público municipal de Amorebieta-Etxano.

SEGUNDO: Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación del servicio de control de funcionamiento, conservación y adecuación de las instalaciones de alumbrado público municipal de Amorebieta-Etxano, mediante publicación del anuncio correspondiente en el Diario Oficial de la Unión Europea, en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial de Bizkaia y perfil del contratante del Ayuntamiento.

TERCERO: Contra el presente acuerdo se podrá interponer, en el plazo de diez días hábiles, recurso especial en materia de contratación.

CUARTO: Facultar al Sr. Alcalde para la tramitación y ejecución del presente acuerdo.

**4.- PSE-EEREN MOZIOA, EUROPAR BATASUNAK LANALDIA LUZATZEKO EGIN DUEN PRO-POSAMENARI BURUZKOA.**

Mozioa irakurri da.

**Castellet j., PSE-EE:**

**4.- MOCIÓN DEL PSE-EE RELATIVO A LA PROPUESTA DE LA UNIÓN EUROPEA SOBRE LA AMPLIACIÓN DE LA JORNADA DE TRABAJO.**

Da lectura de la moción.

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

Egun on.

Proposamen hau uztailean egin genuen guk. Ez zen akordiorik egon Bozeramaileen Batzordean. Geroagorako utzi genuen eta orain dela egun batzuk izan genuen Batzordean eztabaidatu genuen apur batean, zuzenketa batzuk egin genituen, eta hori da taldeei pasatu zaiena.

Gaur goizean, PPk, Beatrizek, gai berari buruzko mozio bat pasatu dit; izan ere, Diputatuen Kongresuan talde guztiek onartutakoa da, eta nik neuk eta gure taldeak bat egiten dugu erabat. Beraz, guk aurkeztu genuena bertan behera utzi nahi dugu, eta gaur goizean pasatutakoa eta Parlamentuan adostu dena proposatzen dugu Esquerra Republicanak, IU-Iniciativa Per Catalunyak eskatuta uste dut. Irakurri egingo dut ez bazaizue axola.

Kontuan harturik Talde Parlamentari Sozialistak eginiko legez besteko proposamenaren eztabaida metatua, lanaldiari buruzko zuzentarauaren araberako lanaldiaren luzapena ez onartzeari buruzkoa (162/000121 zenbakidun espedientea), eta ER, IU, IPren Talde Parlamentariaren legez besteko proposamena, lanaldiaren antolamenduari buruzko europar zuzentarauaren berrikuspena ez onartzeari buruzkoa, laburbilduz, asteko lanaldia 60, 65 edo 78 ordura arte luzatzea, Option Out klausula sartzea negoziazio kolektiboez at eta gutxiengoetara eramatea lanaldiaren birdefinizioa proposatzen duena (162/000122 zenbakidun espedientea), gaurko bilkuran Diputatuen Kongresuaren Plenoak Talde Parlamentari guztiek aurkezturiko ondoko testu transazional hau onartzea adostu du.

Diputatuen Kongresuak

1.- Gobernuari lanaldiaren luzapenaren kontrako jarreraren buru izateko eskatzen diote eta lanaldiaren antolamenduko zenbait alderdiri buruzkoa den eta lanaldia 65 ordura arte luzatu nahi

*Buenos días.*

*Nosotros esta propuesta la hicimos en julio. No hubo en la Comisión de Portavoces un acuerdo. La pospusimos y en la anterior Comisión que hemos tenido hace unos días estuvimos debatiéndola un poco e hicimos algunas correcciones que se han pasado a los diferentes grupos.*

*Hoy por la mañana el PP, Beatriz me ha pasado una moción sobre el mismo tema que está aprobada por todos grupos del Congreso de los Diputados y que yo, y nuestro grupo asumimos en su totalidad. Entonces, retiramos la que presentámos nosotros y proponemos la que se nos ha pasado y ha sido consensuada en el Parlamento a petición creo que de Esquerra Republicana, IU-Iniciativa Per Catalunya y la paso a leer, si no os importa.*

*El Pleno del Congreso de los Diputados en su sesión del día de hoy con motivo del debate acumulado de la proposición no de Ley del Grupo Parlamentario Socialista sobre oposición a la ampliación de la jornada laboral contenida la directiva sobre el tiempo de trabajo , número de expediente 162/000121 y de la proposición no de Ley del Grupo Parlamentario de ER IU, IP sobre el rechazo a la propuesta de revisión de la directiva europea de ordenación del tiempo de trabajo que pretende la ampliación de la semana laboral hasta 60, 65 o 78 horas la inclusión de una cláusula Option Out al margen de la negociación colectiva y la redefinición de a la baja del tiempo de trabajo nº de expediente 162/000122, ha acordado aprobar el siguiente texto transacional presentado por todos los grupos Parlamentarios.*

*El Congreso de los Diputados.*

*1.- Insta al Gobierno liderar la oposición a la ampliación de la jornada laboral y le apoya en sus trabajos con el grupo de Países que tratan de modificar la Ley. La directiva 93/104/CE del Consejo*

duen Europako Kontseiluaren azaroaren 23ko 93/104/EE Zuzentaraua aldatzen saiatzen ari diren herrialdeen taldearekin egiten duen lanaren alde daudela adierazten diote.

2.- Lanaren alorrean eragile sozialen arteko akordioak lortzeko elkarrizketa sozialean eta negoziazio kolektiboan daukaten uste ona berresten dute eta laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familiakoa bateratzea errazten duten neurrietan aurrerapenak egiten jarraitu behar dela errepikatzen dute.

3.- Europako Sindikatuen Konfederazioaren jarreraren alde daude, Zuzentarau honek langileen eskubide sozialen babesean atzerakada argi bat eragiten duela salatzeari dagokionez.

4.- Europako Parlamentuko Talde guztiei lanaldiaren luzapenaren kontra daudela jakinarazten diete, baita Zuzentaraua ez onartzeko laguntza eskatu ere.

Testua argitaratzeko agindu da Ganberaren Araudiak 97. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Diputatuen Kongresuko Jauregia, 2008ko irailaren 16a.

Diputatuen Kongresuko Idazkari Orokorra izan da buru.

*Europeo de 23 de Noviembre relativo a determinados aspectos de la ordenación del tiempo de trabajo que pretende la ampliación del horario laboral hasta las 65 horas.*

*2.- Reafirma la confianza en el dialogo social y en la negociación colectiva como medio para la adopción de acuerdos entre los agentes sociales en el ámbito laboral y reitera la necesidad de seguir avanzando en las medidas que facilite la conciliación de la vida laboral, personal y familiar.*

*3. Apoya el posicionamiento de la Confederación Europea de Sindicatos en su denuncia a esta directiva que supone una clara regresión en la protección de los derechos sociales de los trabajadores.*

*4.- Se traslada su posición contraria a la ampliación de la jornada laboral a todos los grupos del Parlamento Europeo, solicitando su apoyo para rechazar la directiva.*

*Se ordena la publicación de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 97 del Reglamento de la Cámara.*

*Palacio del Congreso de Diputados, 16 de septiembre 2008.*

*Preside el Secretario General del Congreso de los Diputados.*

**Alkate j.:**

Uste dut talde batzuek hitza eskatuko duzuela.

**Sr. Alcalde:**

*Creo que pediréis la palabra algunos de los grupos.*

**Calvo and., PP:**

Egia da hau uztailean aurkeztu zela. Uztailetik daukagu, eta honen berri dugu. Egia da nik bere garaian PSEri proposatu niola “gobernua sustengatu” jarri beharrean “bere sostengua adierazi diote”, gobernua bultzatu nahian Europar Parlamentuan hartu zuen posizioa aldatzera.

Dena den, bagenekien Kongresuan ekimen bat onartu zela. Gure taldearen ustez hobe zen agian Kongresuko Talde Parlamentari guztiek adostutako testu hau

**Sra. Calvo del PP:**

*Es verdad que esto estaba presentado en julio. Desde julio lo tenemos, sabemos de esto. Si es verdad que yo en su momento al PSE le propuse cambiar el término de apoyar al gobierno por expresan su apoyo, por instar al gobierno que cambie esta posición que había tomado en el Parlamento Europeo.*

*No obstante, sabíamos que se había aprobado en el Congreso una iniciativa. Nuestro grupo considera que era mejor, quizá llegar a aprobar este texto que está*

onartzea, egin diren akordioak direla-eta apur bat aldatuta geratu zen testua onartzea baino. Horixe da aurkeztu duguna.

Atzo arratsaldera arte ez dugu testua eskuartean izan, horregatik komentatu diot gaur goizean talde sozialistari.

Hori, alde batetik.

Hitz egin nahi nuke mozio edo ekimen honen funtsari buruz.

Pasa den ekainaren 9an EBko Lan eta Gizarte Gaietarako Ministroen Kongresuak Jarraibideen proiektu bat onartu zuen lanaldiari buruz, 2003ko azaroan onartuta eta indarrean zegoena funtsean aldatuz.

Ez da ekimen hau aurkezten den lehen aldia, sei aldiz ere aurkeztu izan da eta.

Egia esan, Frantzia, Italia, Portugal edo Esloveniako gobernuen boto aldaketak, beste batzuen artean, proiektua onartzea ahalbidetu zuten gehiengoak aldatu zituen.

22 herrialdetako gobernuek aldeko botoa eman zuten, eta 5 abstenitu egin ziren, Espainia, Txipre, Grezia Hungaria eta Belgika.

Lan eta Immigraziorako ministroak, Celestino Corbachok, bileratik alde egin zuen amaitu baino lehen arrapaladan beste konpromiso batzuk artatzeko, eztabaidatzen ari zen gaia oso garrantzitsua zen arren.

Ekimenaren sustatzaile nagusia Britainiar Gobernu Laborista izan da, Europar Talde Sozialistaren kide.

Helburua izan da OITrekin bat etorrita indarrean zegoen Zuzentarauan jasota zegoen 48 orduko sabaiarekin amaitzea.

Zuzentarau proiektu hau arbuiatze asko sortzen ari da.

Proiektua Europar Parlamentuan orain eztabaidatu eta bozketa egin behar da.

*acordado por todos los Grupos Parlamentarios en el Congreso de los Diputados que una moción que ha quedado un poco cambiada por acuerdos que se han llegado, Eso es lo que hemos presentado.*

*No hemos tenido el texto hasta ayer a la tarde por lo que les he comentado al Grupo socialista esta mañana.*

*Esto, por un lado.*

*Si que me gustaría hablar del fondo de la moción o de esta iniciativa.*

*El pasado 9 de junio, el Congreso de Ministros de Trabajo y Asuntos Sociales de la UE, aprobó un proyecto de Directiva sobre el tiempo de trabajo, que modifica sustancialmente la vigente, aprobada en noviembre de 2003.*

*No es la primera vez que se presenta esta iniciativa, se han presentado hasta en seis ocasiones.*

*La verdad es que el cambio de voto de los Gobierno de Francia, Italia, Portugal o Eslovenia, entre otros, modificó las mayorías que han permitido la aprobación del proyecto.*

*Votaron a favor los Gobierno de 22 países, y 5 se abstuvieron, España, Chipre, Grecia, Hungría y Bélgica.*

*El Ministro de Trabajo e Inmigración español, Celestino Corbacho, abandonó precipitadamente la reunión, antes de su finalización, para atender otros compromisos, a pesar de la importancia del asunto que se debatía.*

*El principal impulsor de la iniciativa ha sido el Gobierno Laborista Británico, que forma parte del Grupo Socialista Europeo.*

*El objetivo, ha sido acabar con el techo de 48 horas de la Directiva en vigor, concordante con la OIT.*

*Este proyecto de Directiva, está generando múltiples rechazos.*

*Este proyecto debe ser sometido ahora a debate y votación en el Parlamento Europeo.*

Alderdi Popularrak Zuzentarau proiektua oso gogor arbuiatu du.

Espainiako Lan Zuzenbidean dagoen jurisprudentziaren abiapuntua da langileari beti “onura gehien ekartzen dion baldintza” aplikatuko zaiola. Horrela, astean 48 ordu baino gutxiagoko batez besteko jasotzen dituzten Hitzarmen kolektiboak ditugu, 40 ordu astean ezartzen duen Langilearen Estatutua eta OITko Lan hitzarmena, gehienez ere 48 orduko muga ezartzen duena astean.

Alderdi Popularraren ustez ez dago arrazoi nahikorik egungo sistema aldatzeko, eta bere ustez lan denbora gehitu baino garrantzitsuagoa da eraginkortasuna eta produktibitatea handitzea, hau da, emaitzak eta helburuak betetzea. Ez du ia ezertarako balio laneguna handitzeak, lan orduak ez badira produktiboak.

Alderdi Popularraren ustez nahitaez lortu behar da oreka produktibitate eta errentagarritasunaren artean, kontuan izanik bizitza pertsonala, familiarra eta lanartekoa, eta laneko segurtasun eta osasunaren artekoa.

*El Partido Popular ha rechazado con contundencia este proyecto de Directiva.*

*La jurisprudencia en materia del Derecho del Trabajo en España, parte siempre de la aplicación de la “condición más beneficiosa” para el trabajador. Así tenemos los Convenios Colectivos que tiene una media de menos de 48 horas semanales, el Estatuto del Trabajador que establece la jornada laboral en 40 horas semanales y los Convenios de la OIT, que estable un límite de hasta 48 horas semanales.*

*El Partido Popular considera que no hay razones para modificar el sistema actual, y considera que es más importante que aumentar el tiempo de trabajo es necesario aumentar la eficacia, la eficiencia, y la productividad, es decir, los resultados y el cumplimiento de los objetivos. De poco sirve aumentar la jornada laboral, si las horas de trabajo, no son productivas.*

*El Partido Popular considera que es indispensable conseguir un equilibrio entre la productividad y la rentabilidad, con los objetivos sociales de conciliación de la vida personal, familiar y laboral, y de seguridad y salud en el trabajo.*

**Silva j., EB-B-ARALAR**

Hona iritsita, ez gara hasiko deskubritzen bai PPk eta bai PSk historian zehar erakutsi duten koherentzia eta egin duten borroka lan eta gizarte eskubideak lortzearen alde. Ez gara geratuko azaltzen nolako koherentziarekin PSk defenditzen duen hau Estatuko Kongresuan eta gero nola abstenitzen den Europar Batzordean. Ez dugu hasi nahi azaltzen edo adierazten gehien borrokatu direnak edo zapaldu dutenak sistema kapitalistaren edo merkatu libreko sistemaren bitartez, horiexek direla orain eskatzen dutenak Estatuak eskua sar dezan oso modu basatian ekonomian. Basatia oraingoan ere herritar xumeenei gehiago eragiten dielako beraiek bere sistemarekin sortu dituzten hondakinak aldatzeko garaian.

Hau guztia esanda, gure ustez

**Sr. Silva de EB-B-ARALAR**

*A estas alturas nosotros no vamos a descubrir la coherencia y la lucha por la adquisición de los derechos laborales y sociales que han realizado tanto el PP como el PS a lo largo de la historia. Tampoco nos vamos a detener en la coherencia con que el PS defiende esto en el Congreso estatal y luego se abstiene en la Comisión Europea. Tampoco queremos detenernos en decir o reseñar que, quienes más han luchado o han oprimido con el sistema capitalista o sistema de libre mercado son ahora quienes pretenden que el Estado intervenga de una forma más brutal en la economía. Brutal porque también de esta vez afecta más a los ciudadanos de abajo para cambiar o para modificar los deshechos que ellos mismos han provocado con su sistema.*

*Dicho lo cual, tampoco nos merece*

testuak ez du komentariorik merezi. Logikoa denez gero, sustengatu egingo dugu gure taldeak — Esquerra Republicana IU Iniciativa-Per Catalunya— sustengatu duelako Kongresuan. Bakarrik esan nahi dugu, urteetan klaseen arteko borrokekin lortzen joan diren lan eskubideak, horrela izan baita mendeetan zehar langileen borrokekin, ezin direla gauetik goizera aldatu. Betiko eskumak ez ditu aldatuko, eta ezta orain dela urte batzuetatik hona eskuma birmoldatuak ere. Besterik gabe.

*mayor comentario este texto. Lógicamente lo apoyamos porque lo apoya nuestro grupo en el Congreso que es Ezkerra Republicana IU Iniciativa-Per Catalunya, no le vemos mayor sentido que el decir que los derechos laborales que se han ido adquiriendo con las luchas de clases, porque ha sido así con las luchas obreras a lo largo de los siglos no se pueden pretender cambiar de la noche a la mañana. No solo ya por la derecha de toda la vida, sino por la derecha reconvertida de unos años hacia aquí. Sin más.*

**Bilbao j., EAJ/PNV:**

Egun on:

Lehenengo: Argi utzi nahi dugu ez dugula ulertzen zer dela eta, funtsean denak ados egonik, funtsean hala ematen du, formak aldatzen ditugun, eta mozio pila bat ari garen aurkezten gai bera aztertzeko, denek garbi dugunean funtsean ados gaudela denok.

Hori bai, esan nahi nizuke guztiz onartezina iruditzen zaidala hau egitea Bozeramaileen Batzordean mozio bat adostu ondoren. Gaur gertatu denaren ondoren, ez dakit nik zein den Bozeramaileen Batzordearen funtzioa.

Zuk Antonio esan duzun bezala, behin aurkeztu zen, eta ondoren bigarren aldiz, eta Bozeramaileen Batzordean adostu egin zen alderdi politiko batzuekin. Ez dut ulertzen zer dela eta, aurrez abisatu gabe, bat-batean mozioz aldatu duzun.

Antonio benetan, onartezina iruditzen zait hau. Koherentzia falta izugarria erakutsi duzu, eta aukera bat bilatu nahia. Ez dut ulertzen zer egin duzun.

Bestalde, esan beharra dago formak ere garrantzitsuak direla. Pentsatzen dut mozio honetan egongo direla zenbait forma, aurrez komentatu genuen bezala, guk ezin ditugunak sustengatu edo gure egin. Guk ulertzen dugu zuzentarau honi oposizioa egiten

**Sr. Bilbao de EAJ/PNV:**

*Egunon:*

*Primero: Dejar claro que nosotros no entendemos a cuenta de qué, en algo en lo que estamos en el fondo de acuerdo, parece ser que todos estamos en el fondo de acuerdo, cambiemos de repente de formas y andemos presentando tantas mociones para tratar el mismo tema, cuando todos tenemos claro que en el fondo estamos de acuerdo.*

*Lo que sí puedo decirte que es totalmente impresentable, después de haber acordado una moción en la Junta de Portavoces. No sé cual es la función de la Junta de Portavoces después de lo que ha ocurrido hoy.*

*Como has dicho tú Antonio que se presentó una vez y luego por segunda vez se ha acordado con varios grupos políticos en la Junta de Portavoces. No entiendo a cuenta de qué, sin previo aviso, de repente cambias la moción.*

*Antonio, realmente me parece esto impresentable. Totalmente falta de coherencia y de buscar una oportunidad. No entiendo lo que has hecho.*

*Por otra parte también decir que las formas son importantes, supongo esta nueva moción que hay una serie de formas que como anteriormente comentamos, que no podemos nosotros abanderar o apoyar. Nosotros entendemos que liderar la oposición a esta directiva que el Gobierno*

estatuko gobernuak edo zentralak liderra izan nahi izatea, baina guk ere zuzentarau horren aurkako posizioa lideratu nahi dugu eta arrazoi nahikoak baditugu gu ere oposizio horren lider izateko.

Beraz, formak ere garrantzitsuak dira, eta gure ustez azken unean aldatzea ezin dugu onartu, garbi utzita formei buruz prest gaudela hitz egiteko. Aztertu behar bada, berriro aztertuko da, baina azken unean aurkeztea akordioetara iritsi eta gero, gauza ezberdinak aurkeztea, ezin da egin. Bozeramaileen Batzordeak zerbaiterako dira. Orain abstenitu egingo gara; funtsarekin ados gaude, baina Bozeramaileen Batzordean hitz egin zen bezala; gaur hemen dauden bi talde falta ziren, baina Bozeramaileen Batzorde horretan mozio bat adostu zen. Abstenitu egin behar dugu eta atea zabalik uzten dugu gaia aztertzeko beste Bozeramaile Batzorderen batean. Ezin dena egin da formak aldatu, jakinda forma horiek zenbait eztabaida sor zezaketela, eta ezin duguna egin da azken orduan aldatzea.

*Estatal o el Gobierno Central lidere la oposición, pero creemos que nosotros estamos también liderando contra esta directiva y tenemos razones suficientes para poder liderar nosotros también.*

*Entonces, las formas son importantes y creemos que cambiarlas a última hora no lo podemos aceptar así, dejando claro que estamos dispuestos a tratar las formas. Si hay que tratarlo se tratará otra vez, pero presentar a última hora después de haber llegado a acuerdos, presentar cosas diferentes, no se pueden hacer. Las Juntas de Portavoces son para algo. En este momento nos vamos a abstener en el fondo lo que tratamos estamos de acuerdo pero como se habló en la Junta de Portavoces faltaron dos grupos que están hoy aquí, pero en esa Junta de Portavoces se acordó una moción. Tenemos que abstenernos y dejamos la puerta abierta a que en otra Junta de Portavoces tratemos el tema. Lo que no se puede hacer es cambiar las formas, formas que ya sabíamos que podían tener alguna que otra discusión y lo que no podemos hacerlo es cambiar a última hora.*

**Castellet j., PSE-EE:**

Bi ikasgai izan dugu.

Bata, zuzenbidekoa, eta bestea, langileen errebindikazioei buruzkoa.

Beti jarduten dugu sistema kapitalistari buruz. Arazoa da ez dagoela besterik. Baten bat hobea dagoenean, horri buruz jardungo dugu. Hau ez da ona, baina hauxe da dagoena, txarrenetan ez da txarrena, existitzen dena da, eta herrialde guztiek hartzen dutena, zeren eta hitz egiten ari garen eredua da Sobiet Batasunean zegoena, eta hantxe daude, une honetan.

Langileen borrokei dagokionez, gure alderdia orain dela 100 urte baino gehiago hemengo meategietan, Euskadin, defendatzen ari ziren langileen eskubideak, seguruenik beste batzuek baino 80-90 urte arinago. Ez dut gai honekin jarraituko, ez gaitu inora

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Hemos tenido dos clases.*

*Una de derecho y la otra de reivindicaciones obreras.*

*Siempre estamos hablando de sistema capitalista. El problema es que no hay otro. Cuando hay otro mejor, hablaremos del otro sistema. Este no es bueno, pero es lo que hay y es el menos malo y es el que existe y es el que adoptan todos los países porque el modelo del que estamos hablando es el modelo que había en la Unión Soviética y ahí están, en este momento.*

*En cuanto a las luchas de los trabajadores, nuestro partido hace 120 años que en las minas de aquí, de Euskadi, ya estaban defendiendo los derechos los trabajadores, posiblemente como 80 o 90 años antes que otros. No voy a seguir con este tema porque no lleva a ningún sitio.*

eramango eta.

Iñigok esan duena. Onartezina da Bozeramaileen Batzordearen akordio baten ondoren beste mozio bat aurkeztea. Ados, baina Bozeramaileen Batzordea ez da dena, ez da Jaungoiko bat. Bozeramaileen Batzordeak akordioetara iristeko balio du. Gogorarazi behar dut Bozeramaileen Batzordean hiru talde baino ez geundela, beste bi falta ziren. Bai, baina Bozeramaileen Batzordearen ondoren arku parlamentariaren talde guztien arteko akordio bat egon da, PNV, EA, EB-IU, PP eta PSren artean, hau da, hemen gauden guztien artekoa. Garbi dago, munduko asmo onenarekin, hobe dela Parlamentuan denen artean adostu dena aurkeztea eta ez aurretik hemen hiru talderen artean adostutakoa, seguruenik onargarria zutena besteek ere. Nire ustez PNV berdin-berdin abstenituko zen bukaeran, baina, beno, ondo etorri zaio kontu hau esateko orain abstenitu egingo dela, nire iritzia da, baina niri ez esan gero onartezina dela talde guztien artean adostutako zerbait aurkeztea, talde politiko guztiak ordezkatuta daudenean; uste dut askoz zabalagoa dela geneukana baino; eta gainera biak irakurtzen badituzu ez dago alderik. Ez dago alde handirik bata eta bestearen artean, beraz. Beste kontu bat izango zen mozioaren testuingurutik irteten den zerbait aurkeztu izan bazuten, baina gauza bertsua da, ia gauza bera esaten du; beraz, nik asmorik onenarekin egin dut hau, gure taldeak asmorik onenarekin onartu du hau, arku parlamentari osoak onartuta zegoelako, alderdi guztiak ordezkatuta dituena, besterik ez.

*Lo que ha dicho Iñigo. Impresentable que después de un acuerdo de la Junta de Portavoces se presente otra moción. Bien, la Junta de Portavoces no es un todo, ni es un Dios. La Junta de Portavoces sirve para llegar a acuerdos. Tengo que recordar que en la Junta de Portavoces solo estábamos tres grupos, faltaban otros dos. Sí, después de la Junta de Portavoces hay un acuerdo de todos los grupos del arco Parlamentario donde están, PNV, EA, EB-IU, PP y el PS, todos los que estamos aquí, evidentemente, yo con toda la buena intención del mundo, digo, es mejor presentar esto que se ha acordado por todos los grupos en el Parlamento que no lo anterior que lo habíamos consensuado entre tres, que posiblemente lo podían haber asumido. Creo que al final el PNV se habría abstenido de cualquier manera, pero bueno, esto le ha venido bien para decir ahora que se va abstener, es una consideración que yo tengo, pero que no me digan que es un tema impresentable que se presente algo que se ha consensuado por todos los grupos que están representados de todos los partidos, me parece que es mucho más amplio, esto que lo que teníamos, además, es que, si lo lees los dos no hay diferencias . No hay grandes diferencias entre una cosa y la otra, por lo tanto, otra cosa que me habrían presentado algo que se saldría del contexto de la otra moción pero es que no se sale, prácticamente dice lo mismo, por lo tanto, yo he hecho esto con toda la buena intención, nuestro grupo lo ha asumido con toda la buena intención porque estaba asumido por todo el arco parlamentario que tiene la representación de todos los partidos, nada más.*

**Calvo and., PP:**

Komentatzera noa, besterik ez.

Antoniori gertatu zaion gauza bera gertatu zait niri.

Nik ikusitakoan zer onartu zuten Kongresuko talde parlamentari guztiek, denak iritsi zirela akordio batera bi

**Sra. Calvo del PP:**

*Simplemente voy a comentar.*

*Me ha pasado lo mismo que a Antonio.*

*Yo al ver esto que se había aprobado por todos los grupos parlamentarios en el Congreso que habían llegado a un acuerdo*

talderen ekimenarekin, PS, ER-IU, eta baita arazoren bat izan zezakeen PP ere. Zera esan dut, ekimen bat aurkeztea tontakeria bat iruditzen zait, pentsatzen dut izango dela. PSk aurkeztutako ekimen hau da Diputatuen Kongresuan aurkeztu duen bera, eta akordio batera iritsi da. Askoz hobeto izango da akordio honetara iristea, eremu zabalagoa baitu gureak baino.

Egia da mozio hau uztailetik genuela, eta lehengo egunean pasatu zela Bozeramaileen Batzordetik. Nik bere garaian aldaketa bat proposatu nion Antoniori. Lehengo egunean ikusi nituen egindako aldaketak. Ez zihoazen inora mozioan egin ziren aldaketak. Aldaketak dira Konstituzioa, Espainiako Gobernua hitzak kentzea, nonbait talde politikoren bati alergia sortzen dioten gaiak; ez dut uste gaiaren funtsa ukitu denik, azkenean, garrantzitsuena dena.

*con una iniciativa de dos grupos el PS, ER-IU, el PP que es el que más puede meter algún problema, había aprobado. He dicho, me parece una tontería presentar una iniciativa, me imagino que será. Esta iniciativa presentada por el PS, es la misma que ha presentado en el Congreso de los Diputados y que se ha llegado a un acuerdo. Será mucho mejor llegar a este acuerdo, con mucho más ámbito que nuestra moción.*

*Sí es verdad que esta moción se tenía desde julio que se pasó el otro día por la Junta de Portavoces. Yo le comenté en su momento a Antonio un cambio. Vi el otro día los cambios que se habían hecho. Tampoco iban a ninguna parte los cambios de la moción que se habían hecho. Son, que se quiten los términos de Constitución, de Gobierno de España, son temas que parece que dan alergia a un grupo político, no creo que se haya tocado el fondo del asunto que al final es lo más importante.*

**Bilbao j., EAJ/PNV:**

Gaiaren funtsa gai nahikoa konplexua da. Kontuan hartu behar dugu, era berean, nahiz eta bere lanaldikoak ez izan lanpostu jakinak daudela, disponibilitate zabala eskatzen dutenak, esate baterako, poliziaren gorputz bereziak, suhiltzaileak. Hori ere kontuan hartu behar da.

Esan nahi nuke bestalde, Antonio, komentatu duzunaren harira, ez badago alderik adostu genuena eta gaur hemen planteatu denaren artean, zergatik aldatu? Lehenengo eta behin, alderik ez badago zergatik aldatzen da?

Bigarrena: Zergatik aldatzen da aldez aurretik esan gabe? Zuk zeuk esan duzuna, Bozeramaileen Batzordea ez da dena. Zu bertan iritsi zinen akordio batera eta gauza bat aurkeztu behar duzula esan duzu. Aldatzea, aurrez abisatu gabe, eta horrela egin duzu. Alderdi Sozialistaren hitza horrela aldatzen bada, Alderdi Sozialistaren izaeraren sintoma bat da.

**Sr. Bilbao de EAJ/PNV:**

*Lo que es el fondo del asunto comentar que es un tema bastante complejo. También tenemos que tener en cuenta que hay puestos de trabajo concretos que aunque no sean su jornada laboral, también necesitan una disponibilidad ampliada, como son los cuerpos especiales de la policía, bomberos, etc. También hay que tener en cuenta eso.*

*Decir también que si no hay diferencias, Antonio, entre lo que has comentado, lo que acordamos y lo que se plantea hoy, ¿Por qué se cambia? . Ante todo, primero, si no hay diferencias ¿porqué se cambia.?*

*Segundo: ¿Porqué se cambia sin previo aviso?. Lo que has comentado, la Junta de Portavoces no es todo. Tú llegaste ahí a un acuerdo y dices que vas a presentar una cosa. Cambiar, sin previo aviso y lo haces de esta manera. Si la palabra del Partido Socialista cambia de esa manera, es un síntoma de lo que es el Partido Socialista.*

*Te insto, si realmente esta moción es*

Eskatzen dizut, benetan mozioa berdina bada, Bozeramaileen Batzordean onartu zena mantentzeko.

*la misma, a que mantengas la primera moción la que se aprobó en la Junta de Portavoces.*

**Castellet j., PSE-EE:**

Amaitu egingo dut honekin.

Ez dugu hitz egingo PSren hitzari buruz, lekuz kanpo dagoen gaia dela iruditzen zait.

Errepikatu dut, zergatik aldatu dudan.

Berriro esango dut: Parlamentuan talde guztien arteko akordio bat dagoelako, eta nire ustetan askoz egokiagoa delako talde guztiek onartu dutena aurkeztea; eta ez praktikan han onartu ez zena, mundu guztia abstenitu zelako, Batzordean onartu zena, guk aurkeztu genuen.

Hitza ez betetzea gauza bat aurkeztu dudalako eta hurrengo egunean aurrez abisatu gabe. Hau gaur goizean iritsi zait. Gaur goizean eman didate. Nik ez neukan irailaren 16tik, eta funtsean mozioa, eta horregatik onartu nituen aldaketak, azalekoak iruditzen zitzaizkidalako, Konstituzioaren gaia, Espainiar Gobernuaren gaia, zeren eta, azken batean, guk nahi genuena zen gaiaren funtsera jotzea, hau da, europar zuzentarau bat dago esaten duena 48 orduko gehienezkoa dagoela, eta honekin 60, 65 edo 68ra edo ez dakit zenbatera aldatzen zen, sekulako astakeria. Eta gero, herrialde bakoitzak noski bere legedia dauka eta bere lan hitzarmenak, eta zera esan dezake 68 izan beharrean 35 izan daitezkeela, baina aukera irekia uzten du gainerako herrialdeetan 68ra jotzeko, abanikoa oso zabal uzten delako. Beraz, guretzat oso garrantzitsua da europar zuzentarau hori ez onartzea, eta jarraitzea gutxienez indarrean dagoenarekin, ez baita sistema kapitalista bezalakoa izango. Ez da onena izango, baina bai da gaur egun txarrena ez dena. Azken batean, honengatik esaten dut, bestelako inolako

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Con esto termino ya.*

*No vamos a hablar de la palabra del PS porque me parece un tema descabellado.*

*Lo he repetido porque lo cambio.*

*Lo digo otra vez: porque hay un acuerdo de todos los grupos en el Parlamento y me parece que es mucho mejor presentar algo que lo aprueban todos los grupos que no presentar algo que lo habíamos. Ni tan siquiera aprobado allí, porque se abstuvo todo el mundo. Los que estuvieron en la Comisión que lo que habíamos presentado nosotros.*

*Faltar a la palabra porque presento una cosa y al día siguiente sin previo aviso. Esto me ha llegado esta mañana. Me lo han dado esta mañana. No es que yo lo tenía desde el 16 de septiembre y en el fondo la moción, y es por lo que yo cambie cosas que a mí me parecía superfluas, como el tema de Constitución, tema de Gobierno Español, porque nosotros lo que queríamos, en definitiva, es el fondo del asunto es que hay una directiva europea que dice que hay un máximo de 48 horas y con esto se cambiaba a 60, 65 o 68, no sé a cuantas, una barbaridad, que luego cada país, evidentemente tiene su legislación y cada país tiene sus convenios y puede decir que en vez de 68 pueden ser 35 , pero también deja la posibilidad de que esas, otros países cojan las 68 porque se abre el abanico. Entonces, lo importante es para nosotros que no se apruebe esta directiva europea y que continuemos, por lo menos, con la que está que no será lo mismo que el sistema capitalista. N no será la mejor, pero es la que hay y es la menos mala. En definitiva, es por esto, sin ninguna otra intención por, lo que digo que, en el texto prácticamente no hay grandes diferencias y lo que en el fondo*

asmorik gabe, testuan praktikan ez dagoela alde handirik eta funtsean benetan interesatzen zaiguna ez dela aldatu. Besterik ez.

*interesa evidentemente no se modifica. No es más.*

**Alkate j.:**

Formen kontua besterik ez. Ni izan naizenez mozio berri honen hartzailea, gauzatxo bat argitu nahi nuke. Niri eman didate, eta ez zuzenean, baizik eta zeharka gaur goizean: "Hau Beatriz Calvoren partez". Ez nekien zertaz zihoan gaia, kontsentsurik bazegoenik ere, bilerarik adosteko edo ordezkatzeko lehengo astelehenean adostutako edo eztabaidatutako mozioa, eta benetan esaten dizuet guk ez dugu aztertu, ezta ikusi ere.

Lehenengo, ez da astirik egon eta bigarrenez, ez digute esan zertarako eman ziguten. Argiago ezin dut jarri.

Bestalde, Madrileko Kongresuan ordezkaritza duten talde parlamentariak. Denak ez daude hor ordezkatuta, esate baterako, EAk ez du ordezkaritzarik Madrilen, eta bai aldiz foro honetan. Akordio guztiak mimetikoki trasladatzea, agian batzuk horretan ohituta egongo zarete, agindu hierarkiakoak trasladatzera eta betetzera, kexarik gabe. Uste dut ezin direla mimetikoki trasladatu zuen gainekoek emandako aginduak. Kasu honetan, uste dut Atxurra lagunak ez duela zertan bere burua ordezkatuta sentitu mozio honetan, eta benetan esaten dizut, nik ulertzen dut Diputatuen Kongresua kalitate eta konnotazio politiko oso bereziak dituen foro bat dela, oso antza txikia duena areto umil eta Udalbatza umil honekin. Madrilgo Kongresuan, Espainiako Gorteetan adosten dena areto honetan onartzen denarekin alderatzea neurri batean irrigarri gelditzera eramango gintuzke.

